


Euskal AEko industria-jarduera % 0,5 hazi da 2025eko otsailean

2025eko urtarrilaren aldean, industria-produkzioa % 0,2 igo da

Eustatek landutako datuen arabera, 2025eko otsailean eta lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,5 handiagoa izan da.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,2 egin du gora azken hilabete honetan, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunen* ekoizpenak urte arteko portaera positiboa izan du 2025eko otsailean eta produkzioa % 3,2 hazi da sektore osoan. Igoera hori, batez ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* joerak eragin du, horien produkzioa % 3,7 igo baita; *Kontsumo-ondasun iraunkorren* produkzioa % 1,1 bakarrik hazi da. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, berriz, honako hauek daude: elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Ekipo-ondasunen ekoizpena (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza) % 0,8 jaitsi da aurreko urteko otsailaren aldean.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, ekoizpena % 3,0 jaitsi da urte artean.

Energiaren ekoizpena, azkenik, % 5,7 murriztu da 2025eko otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

insertatabla_21195

Industria-Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera, 2025eko otsailean, positiboa izan da Bizkaian (% 1,0) eta Gipuzkoan (% 0,7). Araban produkzioa % 1,0 jaitsi da.

Maila bereziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko otsailean, urte artean, ekoizpenaren igoerarik handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Materiala eta tresna elektrikoak* (% 5,9) eta *Makineria eta tresneria* (% 5,4). Aitzitik, produkzioaren urte arteko beherakadak *Metalurgia eta produktu metalikoetan* (% 5,2) eta Garraio-materialean (% 3,1) eman dira.

insertatabla_21194

2025EKO OTSAILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehenengo bi hilabeteetako metatua, Industria-Produkzioaren Indizea % 0,9 igo da. Otsailera arteko ekoizpen metatua % 2,4 igo da Ekipo-ondasunetan eta % 2,2 Kontsumo-ondasunetan. Bitarteko ondasunek, aldiz, bilakaera negatiboa izan dute, produkzioa % 1,6 jaitsi baita aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta, eta Energia % 6,5 jaitsi da.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehen bi hilabeteetako metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan eta Bizkaian, % 2,5eko eta % 0,1eko igoerarekin, hurrenez hurren. Araban, aldiz, produkzioa % 0,8 jaitsi da aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % 85,43ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62